


ZER
ALDIZKARIA

432. zenbakia
2016 GABONILLA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

ZORION ETA URTE BARRI ON



Olentzero
zein Erregen



Joanes'ek
Jesus'eri diona



Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



OLENTZERO ZEIN ERREGEN

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Ekaina baragarria dala diño Gorbeia inguruko esaera zaarrak eta orrexegaitik edo, ekinaren podesuz, luzaro be luzaro itxaron eta gero, salbuesenez, "Resurrección M^a de Azkue" leenengo ikastola legeztatu zan Bilbon 1965ean, Euskaltzaindiaren abal eta guzti.

Urte pozgarri orretan be eldu ziran Egu-berri edo Gabon jaiak eta ikastola sortu barri ori be apaindu egin bear zan eta ume, guraso, irakasle eta gaisetikoak al-kartu ziran gogatsu eta ilusioz beterik ospakizun orretarako.

Euskal giro ederrez apaindu eben leenengo ikastola ori eta euskal kultura berreskuratze bidean, besteak beste, euskal mito zaarretik ezaguna zan gure Olentzero jarri eben ikastolaren sarrerako ataka barruan.

Ikastola orretako ume, guraso irakasle eta abarrek inoiz ez lako ospakizunak egin ebezan Olentzeroren inguruan eta oporretara joan ziran sinistu ezinda ainbeste urte neketsu eta gero.

Olentzero, ikastolan geratu zan, atezain legez, poz pozik itxaroten opor ondorengo umeen itzulerari.

Urte zaarra amaitu, barria asi eta bosgarren arrasti-iluntzean, barbarotsa, zaldi-irrintziak eta gaisetikoak barruntatu ebazan gure Olentzerok. Alakoren baten, ikastolako ate aurrera be eldu ziran zerok, ziran ziranekook eta badino ataka barrutik Olentzerok:

- Nortzuk zarien baino ez da?
- Gu? –erantzun eben batak bestearen atzean-, gu, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Mago edo Erregeak gozuz eta emen gabiltz, urtero legez, gazetxoei opariak banatzen etxerik etxe ilusio eta poztasunez beterik. Eta zu nor zaitugu ba, ikastola-etxe au barria da guretzat eta?

- Ni, Olentzero nozue, erdu, erduzie barrura, epeletara, barruan or kanpoan baino egotaro ohea dago eta.

Zaldietatik jaitsi eta sartu egin ziran ikastola barrura. Olentzerok bere oboan ezartzeko aginduz, arrautza gordinak eta ardoa eskeini eutsen inguruko euskal apaingarri guztiak erakusten eutsezan bitartean

Mago edo Erregeok jan-edanotan egozala, Olentzerok jakinguraz beterik galdegu eutsen:

- Zuok zer Mago edo Errege klase zariet ba?
- Ara, Olentzetro - erantzun eutsan irribarreka Meltxorrek. Gure istoria luzea da, oso luzea, baina intziguz josita ikusten zaitudanez, kontatu egingo deusut labur baino ez bada be eta gero zuk zeuk beste ainbeste egin gugaz, gu geu be nor zaitugun jakinguraz beterik gagoz eta.
- Oba ez!- erantzun eutsan Olentzerok pipari tiratuz.

Artara, Meltxor Magoak itza artu eta aikomenzan bere aorik ara askatu eutsazan berbak:

“Ara, Olentzero maitea: gu urteak eta urteak garreneko ordezkari batzuk baino ez gara, baina leenengo Magoek, aiek Babilonia aldekoek, Bibliako tradizioetik jakin eben Jesus Erregea Belen errian jaioko zala eta orain dala bi mila eta piku urte jaioko zan egin be Mateo ebanjelariak adierazten deuskunez.

Ekialdeko Mago edo Erregeok, Jesusen jaiotzaren barri jakin ebenean, artu euren urre, intsentsu eta mirra opariak eta Belenerako bidean jarri ziran.

Zeruan izar berezi bat agertu jakien ekialdetik eta arexek gidatzen ebazan zuzen-zuzen Belenerantz.

Jarusalem-era eldu ziranean eta Herodes erregeari itandu non jaioko zan Jesus Erregea, zeruko izarra estaldu egin jakien.



Herodes oso aserre egoan, amorruz beretik, beste erregerik ez ebalako gura eta auxe esan eutsen Magoei azpikeriaz beretik:

- Zuok joan eta Jesusen jaiotzaren barri dakizuenean, itzuli barriri nigana eta ekarri bere barri, neu be joan eta gurtzeko.

Joan ziran Magook eta Herodesen jau-regitik urtenaz batera barriri agertu jakien zeruko izarra eta zuzen-zuzen gidatu ebazan Belenera.

Jesus ume jaiobarria gurtu eben eta iru opariak eskeini. Baina itzultzerakoan, aingeru baten laguntzaz beste bide bat artu eben eta Herodes barri barik itxi, leen baino aserreago. Orrexegatik agindu eban Herodesek Belen eta inguruko ume jaiobarriak iltzeko Jesus be euren artean izango zalakotan baina aingeru baten laguntzaz Egiptora ies egin eben gauzez Maria eta Josek, Jesus ume eta guzti eta ez ziran itzuli Herodes il arte. Orrelaxe libratu zan Jesus umea Inozenteen eriotzatik.



Gero mendeak joan mendeak etorri, Jesus Jainkoaren jarraitzaileak mundutik zabalduz joan ziran. Pedro deuna Jerusalemetik Erromara etorri zan eta Eliza sortu eban. Erromatar inperioa luze zabaldu zabaldu zan kristau eliza eta beragaz Bibliaren ekarria.

Besteak beste, guk gaur ordezkaten dogun Mago edo Erregeen oitura zaar a be zabalduz etorri zan eta garaian garaiko egiten, urtarrilaren 6an Erregena ospatuz eta bezpera gauean opariak banatuz gaztetxoan artean.

Euskalerrira be eldu zan ospakizun oitura au. Orra or orren adierazgarri Erregeen eguneko abesti zaar eta polit au:

*Apalazio zalduna
iru Erregeen eguna
zotzak eta paluak
Martina atsoaren kontuak.
Martina atsoari eroan deutzaz
iru oilanda katuak
aren azurrak batu ezinda
ark darabizan saltuak.*

Gainera, gulako Erregeak agertu ez arren be, gaztetxoek abestu egiten eben, ia oraitsurarte, abesti jator ori eta agilandoa lortu gizonetzkoengandik.

Aikomen ba Olentzero labur esanda gure Belenetik Euskalerrira arteko istoria. Orain zeurea entzun nai genduke ez dakigulako zutaz ezer.”

- Oba ez, Meltxor, Gaspar eta Baltasar!
Aitu, ni neu be, zuok legez, jatorrizko Olentzeroren ordezkaria nozue. Euskalerrira oso zaarra da, preindoeuropeoa. Eta erri zaar onetan beti ospatu izan da neguko solstizioa, ots, eguna luzatzen asten dan eguna, Eguberria.



Jatorrizko Olentzero, jentil edo basajaun bat zan eta urte baten, Eguberria ospatzen egozala an Nafarroako Aralar mendian, argi berezi bat agertu jakien ekialdetik.

- Guri izarra legez ezta?- erantzun eutsan Gaspar Magoak.
- Baliteke, baina zuok bazenkien Jesus jaio zala, guk oraindino ez, entzun, argituko deusuet eta.

Ekialdeko argi berezi a ikusi ebenean, aiek jentil aiek ezin eben ulertu mezua. Jentil zaarrenari itandu eutsoen eta ene! “Kixmi jaio dok, Kixmi jaio dok” alaurika asi zan eta badino:

- *Gureak egin jok, aro barri bat jatork eta bota nagizue amildegira.*

Esan eta egin. Jentil zaarra aurretik eta, bat kenduta, beste jentil guztiak atzerik ara, euren buruak bota eta galdu ei ziran Aralar barrenean dagoan Arrastaraneko jentil-arripean.

Bizirik geratu zan jentil bakar orixe zan jatorrizko Olentzero eta bere burua amildegira bota eta galdu bearrean, errira etorri zan Jesus jaio zala adierazten, abestitik ezagutzen dogunez: “...aditu zauenean Jesus jaio zala, lasterka etorri zan barri ematera.”

- Baina, Euskalerrriak ez ei ekian guk legez Biblia bidezko barria?- itandu eutsan Baltasar Magoak-.
- Ez, ba. Ez deusuet esan ba Euskalerrria Erromatarrak etorri baino asko eta askoz leenagokoa dana. Jakina, erri zaarretan aozko tradizioa izaten da nagusi eta Euskal errrian geiago, oso berandu asi gara-eta idazten. Gure kasuan, Jesusen jaiotza adierazteko Olentzeroren mitoa sortu genduan. Olentzero izenak be “on edo eta oles aroa” adierazten deusku. Gerora bai, gerora Elizeak argitu deusku zuok Bibliatik jakin dozuena.

Auxe dozue ba laburbilduz Olentzeroren nondik norakoa eta ementxe naukatzue Olentzero ordezkutzen Eguberri edo kristau aroko Gabon egun onetatik, ots, abenduaren 24tik eskolumeen oporrak amaitu arte.

- Ori bai dala misterioz beteriko istoria! Sekula be ez dogu entzun olakorik!- erantzun eutsoen Magook irurek iruretara. Eta jarraian Meltxorrek:
- Baina, zergaitik aurten eta ez aurreko urteetan?
- Ba, ara, lagun barriok, Olentzeroren istoria zaarra da eta ia aaztuta egon da euskal erritxoetan, batez be urietan. Baina, garai onetan, euskaldun izan, euskaldun barriak egin eta euskeraz bizitzeko, ikastolak sortzea eskatzen dau erriak eta orrexegaitik jarri nabe ume eta gaztetxoan artean oitura zaar esanguratsu au errekueratze bidean.

- Ondo baino be obeto asmatu dabe euskaltzaleok,- erantzun eutsan Gaspar Magoak-, baina ezin zaitue itxi emen barruan zeinakio. Zegaitik ez dozu egiten guk legez, gaurkotu, urten erri-rik erri eta urietako kalerik kale eta opariak banatu Gabon gauean, ume eta gaztetxuen bizipozerako?
- Arrazoia dozu, Gaspar- erantzun eutsan zutundurik Olentzerok pipa ketan ebalat-. Azken baten Zuok eta nik Jesusen jaiotza dogu elburu eta opari kontuetan be ume eta gaztetxoak bitzuentzat protagonista.

Zuok Erregen bezperan egiten dozuen legez nik Gabon gauean, poza, bakea eta bizi-gogoa zabalduko dot batean bestean. Zer obeagorik?

Alkarrizketa emankor, gozo eta biotze-koaren ondoren alkar agurtu eben besarkadaka kultura ezbardinak onartuz.

Andik gerora, Gabonak joan Gabonak etorri, ikastolak, eskolak, ikastetxeak, udal kultur-etxeak, eskaparateak, jostailu-

dendak, postalak, ipuin-liburuak, kaleak, etxe barruak eta gainetiko guztiak, Olentzerok bete ziran.

Mendeak joan, mendeak etorri, Erregeak eurak be tokian tokiko euskal giroan sartzen etorri jakuz.

Gaurko gure gizartean iru belaunaldi bizi gara batera. Elduok umetan Erregen ospatzen genduan, gaurko gaztetxoek Olentzero edo / eta Erregen.

Ospakizunaren jatorrira bagoaz, Magoak Babiloniatik Belenera bidean ikusitako izarra eta Olentzerok Aralarretik begiztaturiko argi berezia ez ete da berbera? Baliteke! Kanta dagigun, beraz:

Eguzki argia bero
gu argitzen egunero,
bake pozean ospa daiguzan
Erregen zein Olentzero.



JOANES´EK JESUS´ERI DIONA

Klaudio Barroeta Amorrortu

Urnieta, 2016 - maiatzak 15



*AGURTZEN ZAITUT, JESUS,
JAUNGOIKO AUNDIA,
LENENGOZ NEREGANA
POZIK ETORRIA.
NERE BIOTZA DEZU
ZERUTAR KABLA,
MAITASUNEZ BETERIK
DEDALA GUZTIA,
NOIZ BATEN GOZATZEKO
BETIKO ZORIA.*

URNIETA

URNIETA Gipuzkoako ipar-ekialdeko udalerrri bat da. Donostialdea eta Buruntzaldea eskualdeetako. 6.158 biztanle ebazan 2015.urtean, eta 22,4 km.

IZENA.

Urnieta izenak -eta atzizkia dau, euskal toponimioetan oso arruntako lekua esan gure dauena. Urni-k, ordea, esangure ezezaguna dau. Nafarroa Garaian ba da Urniza izeneko erri bat, Urni itza "oparotasuna" esan gure dauen-(t)za atzizkiari lotua daukana. Alan da be, toponimo bi orreitan ez dago bape argi Urni itzaren esanaia. Ainbat teoria dagoz orreri buruz.

Garai batean oso edatua zan teoria batek (gaur egun izkuntzalariek erabat baztartuta daukiena) esaten eben Urnieta izenaren jatorrizko forma dala (burdin-lekua esangureagaz), au da, burni izenetik datorrela toponimoaren asierako Urni ori.

Teoria ori Justo Garatek proposatu eban, eta Julio Barojaren babesa be izan eban. Alan be, teoria ori bertan bera itxi eban Koldo Mitxelenak, euskal izkuntzalari gorenak. Izan be, burni itza burdin itzaren aldaera modernoa da, Urnieta izena baño askoz be barriagoa: beraz ezin da izenaren jatorria izan. Gañera, Urnietaren eta burdiñaren arteko lotarri nabarmenik eztago; Urnietan mineral ori egon danik be ezagutzen ez dalako. Urnietak burdinola garrantzitsua euki eban, baño errigunetik naiko urrun kokatua, oraingo Lasarte-Oria ain zuzen be.

Beste teoria batzuek Urnieta izenaren erroan ur (ura) ikusten dabe. XIX mendeko autore askok Sebastian Miñanok, Juan Ignazio Iztuetak, Nikolas



Soraluzek eta abarrek Uroneta izenetik eratorria dala diñoe, ur onen lekua esagureagaz, Urnietan errekatxu ugari dago ta. Teoria ori ezta guztiz sentzu bakoa, baña ez da azterketa filologietan oñarritua; erri etimologia da, azken batean.

Teresa Amusatetik, Urnietari buruzko liburuan, eta Done Jakue bideko bigarren maillako geldialdi dala ta, lur sail uinduen lekutzat interpretatu eban izenaren jatorrizko esangurea, edo ta mendi edo muino ugariko ingurutzat.

Urnietaren izena euskeraz nai gaztelera bardin idazten da, eta Urnietako biztanleei urnietar deritze.

INGURUNE NATURALA

Urnietan, Oria eta Urumea ibaien artean kokaturiko eskualde menditsu batean dago. Udalerriaren azalera geiena zearkatzen daben errekek Urumeara ixurtzen dabez urak.

Errigune nagusia 30 eta 50 metro arteko gaieran dago. Alan be, udalerriko lekurik garaiena Adarra mendia da (817 m); eta bigarren punturik garaiena Ondi mendia da (543 m); baxuena, barriz, errigunea bera da. Erliebea menditsua da, muñoak eta mendiskak dira nagusi, baillara korapillatsuen eta errekatxuen artean banatua.

UDALERRI MUGAKIDEAK

Mugakide ditu Ernani iparralde eta iparkialdean, Lasarte-Oria ipar-mendebaldean, Andoain mendebaldean, eta Elduain egoaldean.

AUZOAK.

- *Oztaran
- *Ergoien
- *Goiburu
- *Lategi

GIZA ARRAZTOAK

Urnietan 8.000 urteko giza arrastoak aurkitu izan dira, Marizulo koban. Ainbat aroko lau mailla ikertu dira: Kalkolitoko leen mailla bat, Neolitoko bigarren bat eta Mesolitoko mailla bi. Aztarnak K.a. 6.500 urtetik 3.555 urtera artekoak dira.

URNIETAREN SORRERA

1150 eta 1160. urteen artean Antso VI.a Nafarroak Donostiari forua emon eutsonean, Urnietan Donostiari lotuta egoan.

1397. urtean, Getariako Batzar Nagusietan, Urnietak dagoeneko ba eban ordezkari bat. Urte bi geroago be, 1399an, Urnietaren izena agiri da Enrike III.a Gaztelakoak emondako zerga salbuespenei buruzko zedula batean.

Urrengo mendeetan gaur egungo Urnietan osatzen daben lurren egoera ez da argia: zati bat Donostiako Jurisdikzioari loturik egoan, beste bat Ernanikoari eta irugarrena Aiztondoko alkatezakoari.

1614.urtean iru zatiek, alkarregaz ados jarri ostean, beraien jurisdiziotik bereiztea erabagi eban, alkarregaz berezko iri oso bat eratzeko.

Felipe III.a Espainiakoak on iritzia emon eban, baña bizilagun bakoitzeko 25 daukat ordainbear ebela ebatzi eban. 1615eko uztaillaren 12an erregeak zedula bat emon eban, Urnietari salbuespen eta iri jabetza emon ekion. Donostiak berari egokion zatia itzultzeko eskatu eban, baña Urnietak ez eban amore emon, eta auzia 1659.urtean oraindik ez egoan bein betiko erabakita.

AIERDI BASERRIA.

AIERDI baserria Urnietako Goiburu auzoan dagoen baserria da. XVI mendean eraikia. 2007ko urtarrillaren 31n. Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu eban, Saillkatutako Kultura Ondasuna.

EZAUGARRIAK:

Kanpoaldea.

Familia bakarreko base-
rria da, 20 x 21 metroko oin
karratukoa, eta solairu bi eta
ganbara ditu. Isurki biko estal-
kia dau eta ark gaillur perpen-
dikularra dauka HEera begira
dagoen fatxada nagusiarekiko.
Odi-teilla dau 540m2ko-aza-
leran.

Fatxada nagusiaren beeko
solairuan arlanduzko gotikoa
dago; karearriz eginda dago eta
junturak zementoz bardinduta
ditu. Sarrera nagusia dobeladun
arku zorrotza da eta fatxadaren
erdiko ardatzaren gañean desbi-
deratuta dago. Fatxada orretan
bertan, beste arku zorrotz erdi itxi
bat dauko, eta erantsitako terraza
be bai, zementoz egiña eta fatxa-
dari atxikia.

Leenengo solairko zorutik
aurrera, or-

mak arlangaitzezkoak dira eta
arlanduzko eskantzuak dabez.
Fatxada orretan, pieza bakarreko
iru zutoin ditu orma gotikoaren
gañean. Gaiñera, bost leio-bano
ditu irekita zuriz margotutako
fatxadaren gañean. Orma pi-
koan leioi zulo bi dagoz. Estal-
kiaren teillategalean, beso batek
sendotzen dau gaillurra. IEko
fatxada be arlanduzko gotikoz
egiña dago. Ango sarrera dobel-
ladun erdi puntuko arku da, eta
alboan, kanoi zuloa izan zana
ikusten da itxita. Orren azpian
beste zulo bat dago, arlanduzko
ezpadura daben leioarena, ain
zuzen. Erantsirik daukan egi-
turak itxi egten dau, ein batean,
fatxada. HMko fatxada leen
deskribaturiko bien antzekoa
da, eta orma gotikoa dau be-
ko salairuan eta arlangaitzezkoa
leenengoan. Fatxada orretan iru
leio-zulo dagoz zabalik. Erant-
sita daukon zurezko teillapeak
eta siloak fatxadaren zati bat ix-
ten dabe. Atzeko fatxada NWn
dago, eta beeko solairuan, zulo
bat ageri da: arko zo-
rorotz batek eta
eraikiña





bermatu eta sendotzeko orma labur andi batek osatzen dabe.

BARNEALDEA.

Arku nagusitik sartuta, baserriak bebarrua dauko; batez be, arlauza andiz egiña dago. Sarrera orren ezker aldean, arrasto batzuk dagoz, tximiniarik gabeko sua izan zanaren arrastoak. Eskuinaldean, gaur egungo sukaldea ta logelak dagoz. Alan da be, logelatara IEko fatxadako arkutik zear be joan zaitzke.

Sarreratik, atzean dagoen ikullura be joango zara. Eskailletan gora, leenengo solairura elduko zara; irekia da zatitu bakoa. Eskuinaldean miiztatutako oltzaz itxitako ormatala ageri da; metrallaz ondatuta dago, Karlisten Gerra ondorioz. Ezkerrean beste itxitura bat egon zan, ormatal orrekiko simetrikoa, baña urteak dira aizealdi batek eraitsi ebala. Ormatal orrekaz gañera, lau logela dagoz HEko fatxada nagusian.

Baserriaren egiturak euskarri oneik ditu: bost ardatz-zutoin eta lau bernia, baserriak daukon tola-re gotikoari dagokiozanak. Zutoin orreik abe, beso, petral eta gapirioegaz miiztatuta dagoz, eta guztien artean baserriaren egitura osatzen dabe. Zutoineta-ko batek ustura dauko eta armairu moduan erabiltzen da. Dolare gotikoko lau berniez gain, dolare orren azpilla be badauko dagokiozan sobigainuetan bermatuta.

XIX. MENDEA

Leen Karlistaldia, 1837ko irailaren 8an, Urnietak kalte andiak jasan ebazan: udaletxea, eleizea eta ia etxe guztiak erre ziran, bost etxe besterik erretzetik librau ez ziralako.

Bigarren Karlistaldian, barriz, 1874 urtean, tropa karlistek Ernaniren aurkako borroka abiatu ebenian, bateri karlistak Egurrola baserriaren alboan kokatu ziran, eta Santa Barbarako gazteluan egozan liberalekin tiroka trukatu ebezan.

1886an Euskal Jaiak antolatu ziran Urnietan, eta bertan antzeztu ziran lenengoz euskerazko zenbat antzezlan labur.

EMPRESAK

- *Ambulancias Gipuzkoa
- *Grupe SEB Ibérica
- *Ingenieria y Montajes Electricos Aduna
- *Iparlat : esnea ta esnekiak
- *Metalocaicho

BIZTANLEAK

1906ko urtarrilaren 31an Lasarte erria Urnietatik banandu zan, Lasarte-Oria udalerrri barria osatuteko. Olan, udalerrian biztanle geien ebazan gunea udalerritik at geratu zan, eta Urnietak biztanleriaren % 70 inguru galdu eban.

URNIETAKO ERESERKIA.

1999.urtean sorturiko ereserkia da, eta letra Aitor Mendiluzek sortu eban, Iñigo Peñaren musikarekin. Eurekaz batera urnietar askok lagundu eban ereserkia egiten.

Ereserkia Urnietaren istoriako gerta-kizunen laburpena da:



Adarraren babes goxopean,
dagoen erri eder berezia.
Euskadiren, istorian zear,
ainbat uneren testigu bizia.
Iragana garrantzitsua dauka,
etorkizuna ongi merezia.
Geroaren bila doan erri bat da.
Gure altxor nagusia

Kale ta baserri,
bere soñeko ongi eratua.
Inguruko mendiek
jantzi ta mugatua,
bere izen ta izana,
bere erritarrekin edertua.
Gora Urnieta!
Gora Urnieta!
Gure ametsen bizilekua!

Erria erre zuen
bein karlisten gerrak,
bi urtez ustu zuen
egindako okerrak.
Baina urnietarrak,
ez ziran alferrak.
Orai bizirik dago erritar
zintzo aiei eskerrak.

Erritaren lanak jaso zuen
berriro gure Urnieta kuttuna,
denporarekin biurtu dena
gaur egun guk
ezagutzen duguna,
eta denborak aldatuta ere
gurea da bere etorkizuna
gure barruan gorde degulako
bere nortasuna.

Kale ta baserri
bere soineko ongi eratua,
inguruko mendiek
jantzi ta mugatua,
bere izena eta izana,
bere erritarrekin edertua.

Gora Urnieta!
Gora Urnieta!
Gure ametsen bizilekua!

URNIETAR OSPETSUAK

*Placido Muxika (1906-1982), iztegitilea, apaiza ta euskal idazlea.

*Mikel Atxaga (1832-2009), euskal kazetaria eta idazlea.

*Lurdes Iriondo (1937-2005), kantautorea ta idazlea.

*Xabier Lete (1944-2010), kantaria, euskal idazlea eta politikaria.

Oiartzunen jaioa, Urnietan bizi izan zan.

*Jose Manuel Martiarena (1946), politikari jeltkidea. 1949.eta 1991. urteen artean alkate izan zan, Eusko Lege Biltzarreko kidea (1984-86) eta (1990-91), Eusko Jaurlaritzako Barne Sailleko kontselari ordea (1991/1998) Errizaingoko sailburua zebait

illabetez (1998-11/1999-01) eta Espaniako Senatari be (2000-2001).

*Jose Ignazio Lizeaga (1959), politikari jeltkidea. Urnietako alkate izan zan (1991-1999), bai eta Espaniako senatari be.

*Mari Jose Sardon (1973), judoka, Espainiako txapeldun bederatzi aldiz. Arri jasotzaille be ibilli da. Gañera, sambo modalitatean munduko txapeldun izatea lortu eban 2001.urtean.

*Juan Andres Larrañaga (1797-1838), "Hermanas de la Caridad del Sagrado Corazón de actores de Jesús " sortzeagaitik da famatua. Urnietan jaio zan 1797ko urriaren 21an, eta oso gazte zanetik armadan sartu eta Ego Amerikako errien independentzia gerretan parte artu eban.

IKASKUNTZA

*Ikaskuntzako Zerbitsua urrengo errientzat egokitua: Beterri, Andoain, Astigarraga, Ernani, Lasarte-Oria, Urnieta ta Usurbil.

*Urnietako Udala.

*Egape Ikastola. Aur-ezkuntza (3, 4 eta 5 urteko aurrak), Leen ezkuntza eta derrigorrezko bigarren Ezkuntza.

*Urnietako Salesiar Ikastetxea. Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza Batxillergoa eta Lanbide eziketa Formakuntzarako Ikastetxea.

*Urnietako aur eskola.

*Presentación de Maria Ikastetxea. Aurrekola, Aurrezkuntza eta Leen ezkuntza.

*Sarobe: Arte eszeniko gunea.



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XVII)

Kolon´tar Kristobal´en bizitza´ko edesti onen aria osteraberrezkuratuta.

1.488an Dagonillaren 15ean jaio zan Kristobal eta Beatrizen seme Fernando, eta ezkondu ez arren, orduko denboran zaldunezko aundikiari ez eutselako ardura aundirik emoten, edozein nezka bategaz ume bat eukiteagaitik, naita Beatrizek beren bizitza on eroan dagien, Kristobalek bere ardurazko gauzak ondo baiño obeto atonduta itzi, gero 1.502ko urtean azkenai lez bere seme Diegori agindu eutsonean bezela.

1.489ko urtean, Kolontar Kristobal, leku askotatik ibili zan itsasoz Gaztelako erregearen zerbitzura, erregearen eskutitz bat beragaz eroanda beti, egoten zan leku guztietan ordezkatu bear ebazanak Gaztelako gortearen ordaintzeko ardurapean geratzen zirala, esaten ebana.

Eta emen, Kolonen zaldunezkotasun ta erregearen senitasunak agertzen dira ostera be, bestela nundik nora ulertu ainbeste eskubideko laguntza ?.


1.490eko urtean, Indiako bidearen gora beran urte ta egunak astiro baiña etenbako iraun aldian doiezela, Sa-



lamankaren batzarreko iker-taldearen erabagia agertu zan, Kolontzat ez ebena ekarten baimen eta gitxiago zorionik, Jakintsuen eritzian bidai ori ezinezkoa ta ezezkoaren merezimendu andienagaz baztatu egin ebalako.

Baiña erregeak, Kolonen aurkako erabagia euren eskuetan euki arren, eskutitz bat bialdu eutsoen Koloneri, ezeren itxaropenik kendu barik, eurak erabagiko ebela, Granadako guda amaitzen zanean.

Zoritzar andia Kolontzat, sendian bananduta egonez gain, bere biziaren egoera okertzen ebalako, 11 urteko Diego semea Huelbaren Rabidako lekairtxean, beste semea Kordoban bere amagaz, eta txarrena, Gaztelako gortearen laguntza kendu eutsonean.



1.491ko Jorraillaren 11n Errege katolikuak Juan Printzeagaz batera, mauritarren aurkako borrokak asteko naian, Sebillarrantza joan ziran, Fernando katolikuak bere emazte I Isabel eta seme Juan, Erregearen Alkalako urian izteko.

Uztailaren erdian I Isabelen larruzko aterpeak sua artu eban, eta beste aterpeetan su orrek triskantza aundiak egin eta gero, Fernandok ez daiten ostera alango gauzarik sortu eta beren gudalozteak ondo babestuta egon zitezten, iru illabetetan erri bat jaso eben Granadako ibar aretan, eta “Santa Fe” izena ipini eutsoen uri barri orreri.

Errege katolikuak beti lagundu ta babestu eutsoen Koloneri, baiña sekula ez eben bere izenik, jaio erria ta euki eben Nafarroako erregearen ondorengotasuna aldarrikatu. IIn Juanek eta bere seme Fernando katolikuak, bere aita IVn Karlosekin, errege lez euki zituzen leiak eta pozoitasunezko eztabaidagaitik izango ote zan ?.

Nik geiago sinistuko neuke, Fernando katolikuaren maltzurrezko guzurti ta gaizkatzaillle izateagaitik, ez ebal gura nai inork jakin egian nor zan Kolon, berak eta bere aita IIn Juanek

egin ebezanak, euren seme ta ugazaiarekin ez zitezten ezagutu.

Orregaitik da izilpeko ongunde zarratu ta politiko zital bat, orduko denboratan Kataluña ta Euskalerrria edo ta Nafarroan ezagutu ba ziran Kolontar Kristobalen izen abizenak eta IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, erri-biak euki ebezan eskubidetik, indar guztiekaz matxintasun bideetan sartuko ziralako.

Koloneri, Gaztelaren gorteko agiri guztietan emoten eutsoen arrera, ez zan Mallorca, Jenoba, edo ta alango beste izen bat eukiteagaitik, ez, arrotza izateagaitik baiño.

Eta au da nire ustez, Kolontar Kristobalek euki eban bene-benetako arazoa, errege katolikoak eleiztarren agintaritzazko kaizar aolku eta gaizkide-tasunean euki eben almen guztiagaz, jakin ezedin edo Aragoi ta Nafartar erregetzaren izenak ez egiezan agertu, ezezaguntasunezko illunpetasun baltzenetara sartu ebazan Kolonen izen-abizen ta ondorengotasunak.

Bestela Granadan, Nizeatik katolikotasunezko batzangotasunaren asma-kuntzan etorten zan iritziari bertan ziñez itz emon edo zinpetuaz ez ba eben berriztu, espainiar izenagaz erdi-ugarte edo peninsula au aberrikatolikotasunean batzagozteko euki ebezan egin nai guztiak, pikutara joaten ziralako.

1.491eko urtean, Kolontar Kristobal ez zan kikildu eta Huelbara joan zan Rabidako lekaretxean frantzizkotarren babesa, eta Palos´eko mariñelaren laguntza billa.

Eta begitu non sortu leiken zoriona, bertan aurkitu ebazalako, len berari ainbeste lagundu eutson Pereztar Juan, beste gizon bi barriekaz, Mar-

txenatar Antonio ta Alonso ta Pinzontar Martin, berentzat ain garrantzizkoak izango zirenak.

1.492an Urtarrillaren 2an menperatu eben errege katolikuak Granadako Uria, eta emendik aurrera emon eben amaitutzat mauritarren aurkako guda.

Batikanoko inguruan Aita Santuak, Erromako San Pedro eleiz nagusian meza santuak eta jolas-jaiak ospatuta. Bai eta VIIIn Enrikek Londreseko San Pabloko eleiz nagusian, Islanen aurkako katolikotasunaren garaipena ospatuta.

Emendik aurrera azten dira Kolonen alkarrizketak Gaztelako errege katolikuarekin.

Eta Berak beren buruagaitik zer oldozten eban jakiteko, berak idatzitako berba auk aurkeztuko dautsuet: “Ni zer nintzala oldozten, nere apaltasunak naspillatu egiten eustan, baiña, izaeran eroaten nebana jantzita oldozten, koro bi orren bardiñakua senditen nintzen”.

Eta len Portugaleko erregeagaz egin eban antzera, errege katolikuakaz batzartuta, bere eskaerazko baldintzak ipini eutsezan: agertuko ebazan lurraldearen “Errege ordea, Amiral ta Orokorrezko Jaurleri” izendatu egiela, eta azkeneko izen oneik Don izen-ondokoagaz betiko eroan egiezala bere ondorengoak.

Bai eta Indiasera bakotzaren joan-aldirako prestatu egin bear ziranaren balio izaten zan diru guztitik, berari itzi eutsiela zortzigarrena ordaintzen, eta irabazi guztiko kopuruaretik berari, amargarrena ordaintzea.

Errege katolikuen eritziz, lar zala Kolonek eskatzen ebala ta ostera bota eben atzera Indiazeko asmo ori.

Kolon asarre, lagun guztiari agur

eginda eta mando baten gaiñera igonda, Kordabarantza artu eban bidea, gero Frantzirantza joateko.

Moyako Kondesa, Kintanillatar Alonso, Cabrero ta beste lagunak, ez eben onartu Kolon Europako beste erregetza batera joan zedin, eta euki ebezan asmo on guztiak beste kanpotar batzuk gozatu ez egiezan, erregeñarengana joan ziran ostera, erregeñari esanda, ori gertatuten bazan, Gaztela ta Katolikotasunaren kalte izango zala.

I Isabel Gaztelako erregeñak ostera mezulari bat bialduta, eta Granadatik leko-bira “Pinos Puenten” aurkituta, ostera itzuli zan Kolon bere izeko erregeñak zer esaten eutson entzutera.

I Isabel bere loba Kolontar Kristobalekin egonda, auxe esan eutson: “Eginkizun au, nire Gaztelako erreñuaren kontuan artzen dot, eta Gaztelako gortearen gorde-lekuan dirurik ez balego, nire bitxi ederrak salduta ordainduko dodaz”.

Emen ikusten da Fernando katolikuaren lenengo urruntasuna, I Isabel il zanean, eginkizun oneik, bere guzurrezko maltzurtasun ta norkerizko jokoakaz alkartzeko.

Eta errege katolikuak, Kolonen baldintza orreik agiri baten batzeko, Kolonen lagun andia izan zan Pereztar Juan frantzizkotar lekaideari agindu eutson agiri baten idatzi egiezala, eta onek Koloma´ko Juanen laguntzagaz egin eta gero, alde biak “Santa Fe´ko elkargo”an izenpetu ebezan. Eta Kolonek, asieratik artu eben zaldunezko arrera, errege seme-lez.

1.492an Jorraillaren 17an siñatu ziran agiri oneik Granadaren Santa Fe´ko Urian.

Eta Kolonek, agiri orren baldintza baten, ipini ba eban Enrikeztar Alfonso Amiralaren bizibide edo mailla bardiñean izendatzea, baleiteke Enrikeztar Alfonso, Gaztelako IIIn Enrike erregearen sasiko semea zalako izatea, eta bera beren mailla bardiñekua izanda, zer gitxiago berarentzat, eta alan egin eben Kolon, Indiako Amirala.

IIIn Enrike Gaztelako errege au, Fernando katolikuaren birraitite izan zan.

1.492an Jorraillaren 30ean errege katolikuak Koloneri, aurkitzen ebazan lurralde ta ugartearen “Amiral” “errege ordezk” ta “Jaurleri” izendatuz gain, berak bear eben guztia eskuratu egiotsiela agindu eben, bide orren asmoa, len bait len lortu egian.

Eta erregeak, Palos´eko alkate Rodrigez ta Prietotar Diego eta erritarren artean erregearen aurka egon ziranai, agindu au emon eutsen zigor lez, kañoiakaz armadunezko itsasotzi-bi

ipini egiezela erregearen urtebiko zerbitzura, Kolonek bear eban lekutik ibilteko.

1.492an Lorailaren 12ko zapatuan urten eban Kolonek bere taldekideekin Granadatik Palos´eko Uriaren itsaskairantza.

1.492an Lorailaren 23an Kolonek, Palos´eko jaur-lari ta erritarrai deitu eutsen, San Jorjeko eleizan batu zitezen, erregeak emon eutsoezan aginduak danori irakurriaz batera, itsaszontzi biak bere ardu-rapean ipini egiezen.

Eta Palos´eko jaur-lariak erregearen eskari ori bete-teko, itsaskaian egon ziran itsasontzi bi baitu⁽¹⁾ ebazan, eta irugarrena De la Kosa´tar Juan kantauriko mariñelak eskeiñita eukan itsaszontziakin osotu zan Kolonen itsas-taldea.

Beste gauza bat izan zan itxasontziaren mariñeltza lortzea, ezau-bageko itsas uraren bildur, iñork ez ebalako gura itsasontzietara igon.


Kolonek egoera au ikusita, erregearen agintaritza erabiltzea erabagi eban, eta zigortzeko ziran gaizkilleari parkamenaren ordez deituta, lortu ebazan geienak beintzat.

Agindu orregaz batera, Andaluziko agintari guztia-ri esanda, Kolonek bear eban guztia saldu eutsiela, zentzunezko ordain sari bidetik.

Kolonek ez eban lortzen berak gura ebena eta Ra-bidako lekaideak konturatuta, Pereztar Juan lekai-deari agindu eutsoen Kolonegaz berba egin degian, eta onek Alonso ta Pinzontar Martinen laguntza eskaiñita Koloneri, onek Pinzonegaz diru kontuen gora berak erabagita lortu eban, Pinzon bera ta bere sendiaren lagunakaz itasontziaren mariñeltza bete-tea, eta baita Pinzonek berak diruz, 500.000 ma-rauri maileguz edo aldikoz iztea.

Eta beste itsasontziren mariñel eza, atxilotuta egon ziran edo gizon-gaizkillearen gaiñetik, Palos, Huel-ba ta Mogerreko jendeakaz osotu ebazan.

1.492an Ekaiñaren 23tik, Dagonillaren 3rarteko bitartean Kolonek, Alonso ta Pinzon´tar Martine-kin lortu eban bidai orretarako lortu bear ebena, eta Paloseko jaur-lariak itzi eutsezan itsaszontzi bien al-daketak beste aundiagoko itsasontziagaitik eginda, Palo´seko izenakin joan bear izan ebenak, “La Pinta, La Niña ta Santa Maria”ren izenak ipini eutsozan.



(1) Baitu = decomiso, confiscación, secuestro.

“La Pinta” itsasontzia, Palos’eko Kinterotar Kristobalena izan zan, ta iruretatik azkarrena izan zalako, itsasontzi onetatik ikusi ziran leen Ameriketako lurrak. Itsasontzi onetan 26 mariñel joan ziran.

“La Niña” itsasontzia, Mogerreko Niñotar Juanena izan zan, eta Kolonek ontzi-oialetan egin eutsozan aldaketakaz, bestien bezelako azkarra biurtu zan. Eta itsasontzi onetatik bota eben lenengo tiroa Rodrighez ta Bermejotar Juanek⁽¹⁾ lurra ikusi ebalako. Itsasontzi onetan 22 mariñel egon ziran.

“Santa Maria”, la Gallega esaten eutsoenai, de la Kosatar Juan Santoñako izarlari aundi ta geroago onek egin eban Ameriketako mapa artean ospatsuena izango zanarena izan zan, Koloneri akuratu edo alokatuta. Itsasontzi onek 39 mariñel euki ebazan.

Itsasontzi oneik, izkillu sendo ta kañoiakaz tresnatuta egon ziran, eta lau Pinzon senditar aurkitu ziran ikertasunezko bidai onetan:

Pinta itsasontziren kapitaiña, Alonso ta Pinzontar Martin 45 urte inguruko.

Itsasontzi onen bigarren agintaria, Pinzontar Franzizko Martin.

Itsasontzi onetan be mariñel lez, Pinzontar Diego martin joan zan.

Eta “Niña” itsasontziren kapitaiña Yanez ta Pinzontar Bizente 32 urtekoa.

Diruagaz be, txarto ez, Pinzonek ipini ebazan milloi erdiari, beste milloi bat gaiñeratu egin bear zalako errege katolikuak emon da.



Eta emen oar txiki bat.

Eskerrak B. Gould’tar Alize ikertzaille edo aztertzaillari, iru itsasontzietan jua ziran 87 mariñel guztien izen-abizen eta nungoak ziran datoz, Berd eta Martorelltar Gabrielen liburu onetan.

Orregaitik dakigu Murtziako bat eta amar galizia ta euskaldunen artean ziranetik kanpo, danak andaluzitarrak izan zirela.

Eta arrigarriena emen, zergaitik mariñel guztiaren izen-abizen eta bakotzaren ogi-bidetik euki ebezan langintza eta eurengandik bear ziran zeaztasun guztiak jakinda, Kolontar Kristobalena izen-abizen ta ondorengotasunik ez ?.

Ni itxaropenezko gizona naz, eta ez dakit noz, baiña uste dot agertuko dirala.

Atutxa’tar Paul

Zornotza’n 2.015’eko urtean Epailla’ren 21’ean

(1) Rodrighez ta Bermejotar Juan = Trianako Rodrigoren izenakin esagutzen zana.

Euskaldun barrientzat ikasten

Sudoku

8		1				4		5
	5	4	1		7	2	6	
6								7
			3		1			
	1			2			9	
			7		4			
7								1
	2	6	8		5	9	4	
9		3				7		6

9	5	7	2	1	4	3	8	6
3	4	9	5	7	8	6	2	1
1	2	8	6	3	9	5	4	7
8	1	6	4	5	7	9	3	2
4	9	3	8	2	6	1	7	5
2		5	1	9	3	8	6	4
7		8	1	3	4	5	2	9
9		2	7	8	1	4	5	3
5		4	9	6	2	1	7	8

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- **Azillaren azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan edo info.euskerazaleak@gmail.com izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Abenduko ilaren
ogeitalauean
Jesus gure jabea
jaio da gauean.
Gu ipintzeagatik
izate obean
biotzak zuzenduta
zerura bidean.

Jaungoikoa estalpe
zokoan jaiotzen
astoa ta idia
arnasaz berotzen.
Zeru luren jabea
zaigu lurreratzen
gu guziongatikan
onela umiltzen.

Gabon eskerrik asko
gabon etxeak
gabon pasa dezate
etxe ontakuak.
Saria eman digute
oraindainakuak
aurrera jarraitzeko
asmo artan guaz.